

## KRONIKA - GOGOETA - KRITIKA



### EUSKARAREN NORMALKUNTZARAKO PLANGINTZA OROKORRA

Kataluniako Generalitateak joan zen ekainetik bideratua du katalanaren normalkuntzarako plan orokorra. 1995eko martxoaren 7an onartu zuen Kataluniako gobernuak plangintza, hori diseinatu eta lantzeko urtetako prozesua eraman ondoren; horretan sartuta daude beheragoko erakunde publikoak nahiz bestelako erakunde autonomoak eta enpresa pribatuak ere. Kataluniako indar sozialek partaidetza bizia izan zuten plangintza orokorra diseinatzeko prozesu osoan, eta partaidetza bizia eskaintzen eta eskatzen zaie horren bideratzean eta burutzean. Hainbat gauza irakats diezaguke euskaldunoi katalanen lanak, beti ere ondo jabetuta egonik, euskaldunok egin behar dugula eta aurrera eraman hemen euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra, euskararen egoeratik abiatuz eta horren berreskurapen osoak dituen baldintzak etengabe kontuan edukiz.

Katalanen lehen irakatsia da plangintza orokorraren beharraz jabetzea; horregatik hasi ziren haiek. 1986an egindako «Hizkuntza katalanaren II. Nazioarteko Kongresuan» argi agertu zen, besteren artean, «*hizkuntzaren normalkuntza prozesurako plangintza orokorra egin be-*

*harra*». Hizkuntz politikari «bultzada berria» emateko asmoaren barruan sartzen zen «plangintza orokorraren premia» hori, katalanen dokumentuan eta hitzetan ikusten dugunez.

Katalanek plangintza orokorra lantzeko eta abiatzeko ipini duten ahalginek nabarmenago ipintzen du Euskal Herrian ere, eta bereziki EAEn, dugun euskararen normalkuntzarako plangintza orokorraren behar larria eta premiatsua. Euskararen aldetik begiratuta esan dezakegu, horren normalkuntzarako azken aldiak eskatzen den aurrera-urrats berriaren izena dela plangintza orokorra. Aurrera-urratsaren politika eskatzean, funtsean plangintza orokorra ari gara eskatzen. Duela 10 urte pasatxo argitaratu zuen EKBk *Euskararen plangintzarako oinarriak* izeneko dossier zabala. Orduan eskatzen zen plangintza orokorra gero eta premiatsuagoa gertatu izan da. Unë honetan eta datozen urteetarako aldera ezinezkoa da arazoa.

Baina zer esan nahi du hizkuntzaren (katalanaren nahiz euskararen) normalkuntzarako plangintza orokorrak? Bi gauza funtsean: batetik, unean uneko programa eta proiektutan ibili beharrean, plangintza iraunkorreko filosofia eta teknika politikoaren barruan ipintzea hizkuntz normalkuntzaren politika; bestetik, euskararen normalkuntzaren ikuspegi globala edukiz, sail guztiak batean hartzea, aldi bakoitzean markatu beharreko lehentasunak eta programak aparte. Filosofia eta teknika politikoa da plangintza orokorrarena.

Plangintza orokorraren lehen eragileak erakunde publikoak dira. Horiei dagokie funtsean plangintza diseinatzea eta bideratzea; horiena da erantzukizun nagusia, beren esku dituztelako horretarako baliabide juridiko, instituzional eta ekonomikoak; horrela ulertu dute Kataluniako erakunde publikoek. Erakunde publiko guztiena eta horietako sail bakoitzarena da euskararen normalkuntzarako plangintza egitearen eta burutzearen erantzukizun hori, baina badirudi Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak hartu behar dutela lehen ekimena eta gidaritza, beste erakunde guztiei eragiteko eta guztien plangintzak bateratzeko.

Plangintza orokor hori eragingarria izango bada, ordea, gizarte osoak hartu behar du parte horretan, eta bereziki erakunde eta eragile sozial guztiek (ekonomikoek, hezkuntzakoek, kultura, erlijio, kirol, etab. etako alorrekoek). «*Participación máxima y continuada de los sectores sociales implicados desde la misma concepción del plan*», dio Generalitatearen txostenak, gaztelaniazko itzulpenean. Plangintza egiteko eraman duten

prozesua eta hori bideratzeko jarri dituzten indarrak kontuan hartzen baditugu, nabaria da guztiz aintzakotzat hartu dutela abiaburu eta irizpide hori. Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra bideratzeko, horren filosofiak euskal gizarte osoan behar du sartu; gizarte-indar guztien inplikazioa segurtatzearen, beharrezkoa izango da horren aldeko jarrera sozialak lantzea, ekintzaldi espezifikoak burutuz. Erakunde sozial bakoitza bere barrurako plangintza sektorialak egiteko gertu egotea lortu behar da horrekin. Plangintza sektorial horien batuketa, edo baterakuntza —armonizazioa— izango da plangintza orokorra, funtsean.

Badirudi beharrezkoa litzatekeela lehenbailehen Euskararen Kontseilu Soziala eraikitzea, plangintza orokorra landu eta bideratu ahal izateko. Euskalgintzako erakunde sozialez gain, sektore ezberdinetako eragile sozialek, sail guztietakoek, hartu beharko dute parte horretan, euskararen normalkuntza eginkizun kolektiboa, gizarte osoarena, denez.

Eta zein da euskalgintzako eta euskal kulturgintzako erakunde sozialen egitekoa plangintza orokorrari begira? Hizkuntza Politikako Sailordearentzat eta Zuzendaritzarentzat aldera ezinezko arazoa den bezala, euskalgintzan diharduten gizarte-erakundeentzat ere lehentasunezkoa izan behar du datozen urteotan euskararen normalkuntzarako plangintza orokorrarenak. Areago, orain arte plangintza hori erakunde publikoei eskatzen jardun baldin bazaizkie gehienbat, ordua da beraiek ere zuzenean horri oratzekoa, prozesua zinez aurrera eramaten hasteko. Ez daukate zain egoterik erakunde publikoek noiz ekingo plangintza orokorra lantzearen prozesuari; beraiei dagokien partaidetza betetzeko beren ekimena erakusten hasi behar dute. Bestalde, erakunde publikoekin harremanak eta lankidetzak bideratzeko ahaleginak egin beharko dituzte, plangintza orokorrari begira. Inoiz baino beharrezkoagoa izango da erakunde publikoen eta erakunde herritarren arteko harremanak eta lankidetzak indartzea plangintza orokorrari begira, modu dialektikoan ulertuz horiek, eta ez dikotomian edota menpekotasunezkoan.

Areago, euskararen normalkuntzarako plangintza orokorraren barruan, euskalgintzako eta euskal kulturgintzako gizarte-erakundeek beren barruko lanean barneratu eta gauzatu beharra daukate plangintzaren filosofia eta teknika, beraien egitarauak eta lehentasunak ere plangintza orokorraren marko eta baldintza horietan jarritz. Egingarria izango da hori, partaidetza soziala guztiz zabala baldin bada plangintza orokorraren abiaburutik helbururaino.